

MAHAI-INGURUA: LAGUNDUTAKO GARAPENA

Hausnarketa teorikoak eta praktikoak

Taldeko partaideak:

- Ángel Elías- Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako sailburuordea.
- Omer Oke- Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaria.
- Igor Irigoyen- Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako zuzendaria.
- Luis V. Abad Márquez- Madrilgo Unibertsitate Complutensea – txostengile gisa.
- Xabier Aierdi- Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren zuzendarikidea – moderatzaile gisa.
- Begoña Santos- Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritza.
- Arantza Gandariasbeitia- BBK Solidarioa Fundazioaren koordinatzailea.
- Celina Pereda- Harresiak Apurtuz, Etorkinak babesteko Euskadiko GKEen Koordinakundearen presidentea.
- Belén Rodero- Euskadiko GGKEen Koordinakundearen presidentea.
- Patxi Zabalo- Euskal Autonomia Erkidegoko Etorkinak Gizarteratzeko eta Gizartean Parte Hartzeko Foroaren Osoko Bilkurako kidea.
- Luis Guridi- Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko kidea.
- Juan Carlos Duque- Zutalur erakundearen presidentea.
- William Restrepo- Zutalurren inmigrazio-proiektuen arduraduna.

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	3
Sarrera.....	3
Ondorioak.....	4

ERANSKINAK

Lagundutako Garapena eta Immigrazio Politikak esparru-txostena-

Luis V. Abad Márquez

I. Aurkezpena

“Lagundutako garapena: hausnarketa teorikoak eta praktikoak” mahai-inguruan proposatu eta eztabaidatu ziren edukiak egituratuta eta sistematizatuta sortu dugu ondoren aurkeztuko dugun txostena; aipaturiko mahai-ingurua 2004ko abenduaren 16an egin zen Bilbon, Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzak antolatuta.

Mahai-inguruaren helburua honako hau izan da: lagundutako garapenari buruzko hausnarketa eta eztabaida bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), eta termino horren kontzeptualizazioan eta proposamen praktikoetan aurrera egitea.

Eztabaidan, garapenaren edota inmigrazioaren eremuan diharduten pertsona aipagarrien iritziak eta proposamenak eztabaidatu dituzte partaideen artean; partaide horiek hainbat erakundetakoak dira: Euskal Administrazio Publikoa, Unibertsitateak, Inmigrazioaren Euskal Behatokia, etorkinei laguntza emateko GGKEen eta GKEen Koordinakundeak, enpresak eta GKEak. Partaide batzuk, gainera, etorkinak dira. Horren ondorioz, oso ikuspegi zabaletik heldu zaio gaiari, hainbat ikuspegitatik, alegia: akademikoa, kudeaketa-ikuspegia, esku-hartzea, etab.

Luis V. Abad Márquez Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Irakasle Titularrak egindako esparru-txostena oinarritzat hartuta egituratu da eztabaida.

II. Sarrera

Inmigrazioaren Euskal Planak, Gobernu Kontseiluak 2003ko abenduaren 9an onartutakoak, *Lagundutako Garapen Arloa* hartzen du barne; arlo hori ondoko ildoan inguruan egituratuta dago:

- * Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko harremanak garatzea, garapenerako laguntzako eta EAEko etorkinen harrerako prozesuak errazteko estrategia gisa.
- * Garapenerako laguntzarako ekimenak deszentralizatzeko formulak garatzea, administrazioen, erakundeen eta tokiko mugimenduen zeregina bultzatzearren.
- * Euren sorterrietan egiten diren garapen-proiektuetan atzerritarrek parte hartzeko aukera bultzatzea.
- * Etorkinek euren sorterrietara dirua bidaltzea ahalbidetzeko finantza-prozedurak bultzatzea, bai eta horien kapitalak euren jatorrizko zonaldeen garapenera loturiko produktuetan inbertitzeko prozedurak ere.

Lagundutako garapenaren kontzeptuaren inguruan eztabaida eta iritzi desberdinak sortzearen, *Immigrazioari eta Lagundutako Garapenari* buruzko I. Jardunaldiak antolatu zituen Inmigrazio Zuzendaritzak 2002ko abenduaren 12an eta 13an Bilboko Euskalduna Jauregian.

Bigarren fasean, eta Kulturartekotasunaren II. Astearen esparruan, honako gai honi buruzko Nazioarteko Jardunaldiak egin ziren 2004ko ekainaren 23an eta 24an: *Immigrazioa eta Toki Erakundeek zeregina*. Jardunaldi horietan, migrazio-fenomenoaren eta lagundutako garapenaren arteko loturari buruzko hausnarketa egin zen, honako hauek aintzat hartuta: etorkinek euren sorterriaren garapenean betetzen duten egitekoa eta sorterriko zein harrerako herrialdeko Toki Erakundeek garapenaren sustapenean duten zeregina.

Askotariko planteamendu eta ikusmolde eskaini ziren lagundutako garapenari buruz batzuek zein besteek esandakoetan. Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzak migrazioak eta garapena uztartzen dituen termino hori edukiz betetzen lagundu nahi du, EAEn etorkinen kopurua etengabe hazten ari den eta Iparra/Hegoa harremanek erronka gehiago ezarri eta aukera gehiago eskaintzen dituzten aldi honetan. Hori lortzeko beste urrats bat da mahai-inguru hau.

III. Ondorioak

Kontzeptualizazioa

Munduko migrazio-mugimenduen hazkundearen testuinguruan honako hauek bultzatzea lortzeko estrategia-sorta gisa har daiteke lagundutako garapena: kulturartekotasuna, etorkinak harrerako herrialdeetan gizarteratzea eta etorkinen sorterriak garatzea.

Sorterrien garapena sustatzeko, beharrezkotzat jotzen da garapenerako lankidetzako politikak bat etortzea immigrazio-politikekin, EBn eta estatu kideetan. Era berean, beharrezkotzat jotzen da lagundutako garapenerako politikak eta migrazio-fluxuen kudeaketa bereiztea.

Bestalde, etorkinen sorterriek eta harrerako herrialdeek interes berberak lortzeko elkarrekin lan egitea dakar lagundutako garapenak. Lehentasunik ez badago, lehentasun horiek elkartasunezko ikuspegia aintzat hartuta ezarri behar dira; Näir eurodiputatuak *beharturiko elkartasuna* deritzo horri.

Halaber, lagundutako garapenak elkarrekikotasun, alde bikotasun eta berdintasun ideiak Iparra/Hegoa harremanetan berriz ere txertatu beharra nabarmentzen du; aplikatzen zailak diren arren, kontzeptu horiek barne hartuta daude garapenerako lankidetzan.

Era berean, lagundutako garapenean, bereziki garrantzitsutzat jotzen da etorkinek euren sorterrietan —besteak beste, dirua bidaliz egiten dituzten ekarpenen bitartez— garapen-eragile aktibo gisa duten zeregina. Bidalketak optimizatzeko, beharrezkoa da oraindik ere handiak diren transferentzia-kostuak murrizteko moduak aurkitzea. Era berean, komenigarritzat jotzen da diru-bidalketak aprobetxatzea herrialde igorlean zein hartzailean finantza-zerbitzuak erabiltzeko aukera handiagoa izateko bide gisa.

Harrerako gizarateak aintzat hartu behar du etorkinek helmuga-herrialdean garapenerako egiten duten ekarpena, hori ere oso garrantzitsua baita lagundutako garapenerako.

Aktoreak

Deszentralizazioa, aktore-ugaritasuna eta gizarte zibilaren parte-hartzea lagundutako garapena definitzen duten ezaugarriak dira.

Toki-erakundeek, batez ere udalerriek, funtsezko zeregina izan dezakete lagundutako garapenean, etorkinen sorterrietako herrien eta helmugako herrien artean hainbat estrategia abiapuntutzat hartuta, hala nola senidetzeak edo alde biko hitzarmenak

abiapuntutzat hartuta. *Enpresaren* lana ere beharrezkoa da, batez ere gizarte-ikuspegia garbi dagoenean.

Gizarte zibilaren parte-hartzeari dagokionez, garrantzitsua litzateke etorkinek hartzea protagonismoa lagundutako garapenaren arloan esku hartzeko estrategietan. Horretarako, *etorkinen asoziazionismoa* sustatzeko baldintza egokiak sortzea bultzatzen jarraitu beharra dago, honako hauen bidez: prestakuntza-jarduerak, aholkularitza, laguntza, etab.

Lagundutako garapenerako estrategietan etorkinen parte-hartzea garrantzitsua izateak ez du esan nahi euren sorterrien garapenerako ahaleginaren ardura eurek izan behar dutenik; aldiz, bi mundurekiko lotura duten herritarrak direnez, zeregin garrantzitsua dutela nabarmentzen du.

Lagundutako garapena EAEn

Eusko Jaurlaritzan, Inmigrazio Zuzendaritza eta Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren barruko zuzendaritzak dira, eta horrek erraztu egiten du bien arteko koordinazioa. Lagundutako garapenari buruzko hausnarketa bultzatzen ari da Inmigrazio Zuzendaritza, ekitaldiak eta jardunaldiak antolatuz, garapen hori Inmigrazioaren Euskal Planaren esparruan gauzatzearren.

Etorkinen sorterriekiko garapenerako lankidetzak onetsi den bide bat da. *Garapenerako Lankidetzako EAeko 2005-2008 Plan Zuzendari* berrian, Kolonbia, Ekuador, Senegal eta Saharako Arabiar Errepublikak Demokratikoa (RASD) hartu dira lehentasunezko herrialdeetat, horiek baitira EAeko etorkinen zati handi baten sorterriak.

Etorkinei garrantzi handia ematen zaie lagundutako garapenaren aktore gisa; hala ere, errealtatean oso gutxi daude prest edozein motatako elkarteetan parte hartzeko (GGKEetan, Etorkinen elkarteetan, Etorkinen aldeko elkarteetan...). EAeko etorkinen ezaugarriak dira horren arrazoiak; izan ere, horietako asko gazteak dira eta ez dute egoera egonkorrik; beraz, hasieran premiazko beharrak asetzen ahalegindu behar izaten dute (erregularizazio administratiboa, lana, etxebizitza, etab.). Horrez gain, sarritan, etorkinek beste modu batean elkartzeko ohitura izaten dute euren sorterrietan, eta formalizatu gabe elkartzeko ohitura horiei eusten diete EAEn.

Bestalde, salbuespenak salbuespen, GGKEek ere ez diote lagundutako garapenari heltzen. Teoria-arloan dagoen ezjakintasunaz gain, zailtasunak sortzen dira lagundutako garapena praktikan gauzatzeko.

Azkenik, diru-bidalketei dagokienez, EAEn bada etorkinak finantza-arloan barne hartzeko lanean diharduen eta gizarte-ikuspegia duen finantza-erakunde bat gutxienez; erakunde horrek sorterrietara transferentzia ekonomikoak egiteko zerbitzua eta harrerako herrialdeetan inbertsioak egiteko kreditu solidarioak eskaintzen ditu. Etorkinen sorteri diren herrialde batzuetan (Peru eta Kolonbia) filosofia bera duten finantza-erakundeekin hitzarmenak sinatzea bultzatzen ari da erakunde hori, diru-bidalketen onuradunek finantza-zerbitzuak erabiltzeko aukera bermatzearen. Era berean, Inmigratio Zuzendaritza eztabaida bultzatzen ari da, bai eta Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioari laguntza ematen ere, alderdi horretan aurrera egiteko bideak aurkitzearen.

ERANSKINA

“LAGUNDUTAKO GARAPENA ETA IMMIGRAZIO-POLITIKAK”

I

Gaur *“lagundutako garapenari”* buruz arituko gara. Dakigun bezala, termino hori batez ere Sami Näir eurodiputatuak garatu zuen 1997an, eta azken bost urteotan, asko erabiltzen da, batez ere 1999an Tampere-n egin zen Europako Gailurraren ondoren. *“Lagundutako garapena”* kontzeptua izugarri hedatu da denbora laburrean. Zergatia azaltzen erraza ez bada ere, ustekabeen eta berehala arrakasta nabarmena lortzen duen termino horietako bat dugu. Gaur egun, jende guztiaren ahotan dabil lagundutako garapena. Zirkulu akademikoetan, baita agenda politikoetan, gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeetan eta gizarte-komunikabideetan ere.

Hala ere, erruz darabilgu termino hori —gaur egun arte hala izan da behintzat—, baina ez dugu definitzea eta horren eduki operatiboa ematea lortu. Nire ustez, termino horren erabilera politikoa —batez ere horri buruz Europar Batasunean erabiltzen den argotean— askoz ere handiagoa da horren kontzeptua zehazteko ahaleginak baino. Lagundutako garapeneko proposamenek bi ezaugarri dituzte: zehaztugabetasun semantikoa eta proposamen horiek erabiltzen diren asmo politikoan anbiguotasuna. Agian, gaur ildo horretan aurrera egitea lortuko dugu denon artean, baina oraingoz onartu egin behar dugu horren edukia ez dela zehazki garatu, eta ondorioz, are gutxiago *“lagundutako garapeneko programak”* zehazki zer diren juridikoki/politikoki artikulatzea lortu; hori onartzea, hain zuzen ere, izan behar dugu abiapuntutzat.

Gauzak horrela, nire ustez, gehiago aurreratuko dugu termino horren definizioa hasiera-hasieratik eman ordez, auzi horri beste ikuspegi batetik heltzen badiogu. Agian erabilgarria litzateke galdetzea zergatik lortu duen halako onarpen-maila lagundutako garapenaren ideiak, nahiz eta horren edukiaren nondik norako zehatza jakitea lortu ez dugun. Eta zergatik iruditzen zaigun oraindik ere proposamen egokia, nahiz eta hasiera batetik eztabaida sortu zuen. Nire iritziz, horren guztiaren atzean intuizioa dago batez ere. Intuizioak esaten digu lagundutako garapena baliozko alternatiba izan daitekeela garai hauetako erronkarik premiazkoenetako batzuk kudeatzeko. Hain zuzen ere, orain

arte ez dugu erantzun politiko eraginkorra aurkitu erronka horietarako, eta ez dakigu erronka horiei nola heldu, eta are gutxiago nola gobernatu.

Arazoa da kontzeptu horrek duen zehaztugabetasun semantikoa erakargarria suertatzen zaigula, baina aldi berean hainbat galderaren aurrean jartzen gaituela bete-betean, nola erantzun ez dakigula. Izan ere, gure ustez, bidea aurkitu dugunean, ekintzara pasatu behar dugu. Eta hortxe sortzen dira arazoak. "Lagundutako garapeneko programak" deritzegun ekimenak diseinatzean, arazoa nominalista ez ote den izango zalantza sortzen zaigu. Hau da, egin dugun gauza bakarra ez ote den hauxe: dagoeneko ezagutzen eta landuak ditugun jarduteko programa zaharrei politikoki erakargarria den izen berria jartzea.

Nahikoa da lagundutako garapenari buruzko literaturaren zati bat irakurtzea eta halakotzat hartzen diren programa batzuk aztertzea, arriskua erreal dela jabetzeko. Horregatik, nahasmenean murgildu nahi ez badugu, nire ustez, ezinbestekoa da diskurtso-mailak bereizten hastea. Nire iritziz, bi daude gutxienez. Hurbileneko zentzuan, lagundutako garapena terminoa erabiliz, jarduteko tokiko programa zehatzak izendatzen ditugu; programa horiek harrerako herrialdeek finantzatu eta bultzatzen dituzte eta etorkinen jatorrizko eskualdeen tokiko garapena lortzera bideratuta daude, etorkinen eta horien elkarleen parte-hartze aktiboa bultzatuz. Esanahirik ohikoena hori izan arren, nire ustez, zentzu zabalagoan defini dezakegu lagundutako garapena, *immigrazio-politikak eta garapenerako lankidetzako politikak sorburutzat izan behar dituen eta politika horiek bat etortzea ahalbidetu behar duen printzipio orokor* gisa. Azken batean, jakin badakit diskurtso-maila horrek tokiko garapeneko programa zehatzen efizientzia gauzatzea izan behar duela helburutzat; hala ere, nire ustez, hori potentzialtasun osoz lortzeko, lagundutako garapenari buruzko proposamena jardun partzialetik haratago joan eta printzipio gidari bihurtu behar da, atzerritarrei buruzko politiken zein garapenerako lankidetzakoen erregulazio juridikoaren esparru orokorrak sorburutzat izan behar duen filosofia etiko/politikoa bihurtu ere.

Espero dut egunean zehar eztabaida gehienek lehen maila izatea ardatz. Baina, honako hau esparru-txostena izatea nahi dugunez, oraingoz gure arreta bigarrean jarri behar dugulakoan nago. Hau da, immigrazioko eta garapenerako lankidetzako egungo politikek erabat aldatu eta zein noranzko hartu behar duten lagundutako garapenerako politikatzat hartu ahal ditzagun.

II

Termino horren esanahiari buruz oraindik ere ados jarri ez bagara ere, badakigu zerbait gehiago. Hasieratik, badakigu lagundutako garapeneko proposamena edukirik gabeko ekimen hutsa eta politikoki zuzenak diren terminoetako bat baino gehiago izango bada, gaur egungo nazioarteko harremanen jokalekuko bi joera garrantzitsuenen elkarguneak izan behar duela haren jarduteko eremua. Batetik, nazioarteko aldeak betiketzea edo, are gehiago, larriagotzea eskualdeen eta nazioen arteko garapen-prozesuetan, etorkizun ertainean aurrerapen nabarmenak egingo direla pentsatzeko bidea ematen duten adierazle fidagarririk izan gabe. Bestetik, nazioarteko migrazio-fluxuak areagotzea; fluxu horiek harrerako herrialdeen agenda politikoan behin betiko sartu dira, eta horren arrazoiak, termino absolutuetan duten bolumena bainoago —MNEren (OIM) 150 milioi lagun dira—, honako hauek dira: mobilizatzeko duten ahalmena, lortzen ari diren dimentsio globala eta harrerako herrialdeetan era guztietako ondorioak izatea.

Bi erronka horiei heltzeko orain arte izan diren erantzun politikoak, kasurik onenean ez dira eraginkorrak izan, eta kasurik txarreanean, porrot izugarria izan dute. Garapenerako lankidetzako politikei zein migrazioak kudeatzeko politikei dagokienez, errazagoa suertatzen zaigu zeinek izan behar *ez* duen gauzen ildo eta zer *ez* den egin behar salatzea, irtenbide errealistak eta eraginkorrak proposatzea baino. Eta intuizioak esaten digunez, lagundutako garapeneko proposamena aurrerapen garrantzitsua izan liteke, eta erantzun erabilgarria eman lezake bi erronka horiek modu koordinatuan kudeatzeko.

Bi gertakari horiek (migrazioak areagotzea eta alde ekonomikoak) jatorriz ***loturik*** daude eta lotura hori estu-estua da; hala ere, badakigu horien kudeaketa politikoan ***ez daudela loturik***, orain arte behintzat. Horietako bakoitzari erantzuteko gauzatzen ari diren politikek, praktikan, ***bereizita*** hartzen dituzte aintzat, bi arazo balira bezala. Garapenerako lankidetzako programek ez dute barne hartzen lanaren nazioarteko mugikortasunaren kudeaketa integratuko ekimenik. Migrazio-politikak, berriz, ez dira gauzatzen herrialde igorleen garapenaren zerbitzurako tresna espezifiko gisa.

Bestela esanda, aurrez aurre dugun egoera paradoxikoa honela laburbil daiteke: bi gertakari horiek gauzen nondik norakoan lotura estua dutela jakin arren, horiei heltzeko politikak grabitazio-orbita desberdinetan gauzatzen dira; are gehiago, alderdi askotan, politika horiek kontrajarriak izaten dira. Loturarik ez horren froga tamalgarria honako hau dugu: garapen-helburuen finantziarioari buruz 2000n egin zen *"Milurteko Adierazpenean"* eta 2002ko *"Monterrey-ko Konferentzian"* ez zen espresuki aipatu migrazio-kudeaketa garapenerako lankidetzako tresna gisa, ez eta migrazio-mugimenduen kudeaketa adostuaren beharra ere.

Loturarik ez hori are tamalgarriagoa da kontuan izanik jakin badakigula nazioarteko migrazioak aukera historikoa izan litezkeela sorterrien garapenerako. Benetan izatea ala ez auzi politikoa da funtsean, eta garapena helburutzat duten migrazio-politikak gauzatzeko borondatearen baitan dago. Sobera argudio dago jarrera hori justifikatzeko. Kontua garapenerako laguntza ematea bada, neurri gutxi izango dira praktikan nazioarteko migrazioak adostasunez arautzea bezain eraginkorrak. Sorterriek duten hazkunde demografikorako enplegu-tasa egokiak sortzeko gai ez diren aparatuak dituzten sorterrietako merkatuetan biztanleria aktiboaren soberakinak murriztea, itzulerak —nola kapital fisikoa (diru-bidalketak), hala ukiezinak (trebetasunak, kualifikazioak, enpresa-ekimenak, etab)—, teknologia, antolamendu eta erakunde arloko transferentziak, eta, aurrekoen moduan, migrazio-mugimenduak bultzatzen dituzketen beste hainbat fenomeno lankidetzarako tresna eraginkorrak izateko, kudeaketa adostua egin behar da mugimendu horiek garapen-helburuetara lotzearren.

Euren horretan utzita edo harrerako herrialde bakoitzaren interes partikularren arabera utzita, migrazioek sorterrietan duten eragina ez da beti batura positiboa izaten. Oro har, emigratzeko erabakiak eragindako kostuak —zuzenekoak zein aukera-kostuak— etekinak baino handiagoak badira (adb: diru-bidalketen eta ukiezinen itzuleraren bidezko etekinak), tokiko ekonomia askotan errentak behera etor daitezke eta bertako ekonomia pobreagotu, edo gizarte-desberdintasuneko prozesuak bizkortu egin daitezke, murriztu beharrean. Hori guztia landa-inguruetan gerta daiteke batez ere.

Beharrezkoa da tesi hori nabarmentzea. Migrazioak garapena bultzatzea edo herrialde igorleak are gehiago pobretzen laguntzea ez dago gauzen nondik norakoen baitan, eta are gutxiago merkatuen indarrarenean. Auzi *politikoa* da funtsean, eta herrialde horiek duten garapen-ahalmena gauzatzeari begira kudeatzaileek migrazio-politikak ezartzeko

borondatea izatearen ala ez izatearen baitan dago. Horixe da txosten honen funtsezko tesia. Lagundutako garapena politikoki zuzena den kontzeptu hutsa baino zerbait gehiago izango bada, jarduteko tokiko programa partzialetik haratago iritsiko bada, migrazio-politiken zein garapenerako lankidetzako politiken sorburu-printzipio izango bada benetan, *migrazioen kudeaketa herrialde igorleen garapen-helburuak lortzeari lotzea* erabaki behar da aurrena.

III

Hain zuzen ere, ez dirudi azken hamarkadetan gauzak horretara bideratu direnik, kontrakoa baizik. Immigrazioa eta etorkinen eskubideak aintzat hartzea harrerako estatu bakoitzaren eskumenen eraginpean daude oraindik ere. Arlo horretan bereziki eusten diote Estatuak euren subiranotasunari. Oro har, esan ohi da globalizazioak estatuetakoa mugak apurtu dituela kapitalaren nazioarteko mugimenduetarako, multinazionalen mugikortasun estrategikorako zubiak jarri dituela eta produkzioa deslokalizatzeko prozesu malguak sortu dituela, eta hori guztia lanaren nazioarteko banaketaren etapa historikoa sortzen ari dela. Baina berez, lanak, hau da, produkzio agregatuaren zeregina osatzen duen beste faktore klasikoak, nazioetako muga zaharren barruan finkaturik darrai.

Eraikitzen ari garen globalizazioaren logika asimetrikoa da, hain zuzen ere, lana dela-eta Estatuak euren mugak babesten jarraitzeko arrazoia, bai eta atzerriko langileak onartzeko eskubidea *grazia bidezkotzat* hartzen jarraitzekoa ere. Jakina, ez dut proposatu nahi lan-merkatuak desarautzeko beste modu bat, langileen joan-etorri askeko mugimendua murrizketarik gabe zabaltzea, alegia. Izan ere, Hegoaldeko kanporatze-faktore demografikoak eta ekonomikoak izugarriak dira gaur egun, eta mugak erabat liberalizatzeak tentsio jasangaitzak sortuko lituzke harrerako gizarteetan; hori, bestalde, ez litzateke lagungarria izango Hegoaldeko bizi-baldintzak hobetzeko. Aditza eman nahi dut erregulazio hertsirik horrek eta harrerako herrialdeek etorkin onartzeko eskubidea *grazia bidezkotzat* hartzeak —Iparraren eta Hegoaren arteko gainerako harreman ekonomikoekin inolako loturarik ez duenez— ondorio ugari sortzen dutela bata bestearen atzetik; ondorio horiek, hain zuzen ere, erabat eragozten dute

atzerritarrei buruzko politikak herrialde horien garapenaren zerbitzurako tresna efizienteak bihurtzea.

Bata bestearen ondoren gertatzen diren ondorioen artean, atzerritarrei buruzko politikak definitzeko *aldebakartasuna* da lehena; hau da, harrerako Estatuak ez dute ikusten etorkinen sorterriekin helburuak adostu behar dutenik. Bigarrena honako hau da: etorkinak onartzea grazia bidezkoa dela eztaba daezintzat hartzen denez, atzerritarrei buruzko politiken lehen helburua interes nazionalen defentsa da ezinbestean, eta batez ere horien lan-merkatuetako eskaerena. Horregatik, atzerritarrei buruzko politikek euren merkatuen beharrak kontuan izanik eta betiere lehentasun nazionalaren klausula ezarriz definitzen dituzte urteko kupoak eta finkatzen dituzte egoitza eta lan baimenak emateko baldintzak. Bestela esanda, honako egoera paradoxiko honetara iritsi gara: *atzerritarrei* buruzko politikak bihurtu dira interes *nazionalak* defendatzeko tresna juridikoa.

Hori jakintzat hartzen denean, ondoriozta daiteke migrazioen kudeaketa ez dela lankidetzaren helburutzat hartuta pentsatu eta ez dela horrela pentsatuta egongo. Funtsean, harrerako merkatuetan eskulana selektiboki hornitzeko bidetzat hartzen dira migrazioak, eta atzerritarrei buruzko politikek printzipio hori berretsi baino ez dute egiten. Gaur egun gauzatzen diren moduan, migrazio-politikak, herrialde igorleen garapenerako lagungarriak izan beharrean, benetako oztopo bihurtzen dira hainbat alderdiri dagokionez. Immigrazio-politiken bitartez, Iparra ez da arduratzen sorterriek garatzeko dituzten beharrez. Atzerritarrei buruzko politiken gainean, zehaztasunez esan daiteke, horien ondorio ekonomikoak kontuan hartuta, politika horiek *"garatua garatzeko"* pentsatuta daudela, *"garatu gabea garatzeko"* pentsatuta egon ordez. Jarrera hori are erosoagoa da kontuan izanik Hegoaldeko garatzeko beharrei erantzuteko beste politika-mota batzuk diseinatzen direla: garapenerako lankidetzako politikak. Honako hau izan da orain arteko zeregin-banaketa: Hegoaldean ustez garapena bultzatzera bideraturiko lankidetzaren politikak eta Iparraldearen interesak babesteko pentsaturiko migrazio-politikak.

Hirugarren ondorio gisa, aipa dezakegu lehentasun nazionalerako klausula babestera bideraturiko migrazio-politikek oinarritzeko kezka bakarra izan dezaketela: eskulan "gehigarriaren" beharrak ase daudenean, honako hauek lortzeko ahaleginak egin behar dira: sarrera masiboak saihestea, mugen kontrola, immigrazio irregularraren aurkako

borroka eta segurtasuna eta ordena publikoa bermatzea. Hala, migrazioen kudeaketa ezaugarritzat duten joera polizialerantz bideratu da ezinbestean, eta azkenean, Barne Ministerioen eskumeneko bihurtu dira.

Garbi dago atzerritarrei buruzko politikek eta garapenerako lankidetzakoek Laguntza emateko ahalegina grazia bidezkoztat hartzen duen a priori juridikoa dutela abiapuntutzat. Baina haiek ez bezala, lankidetzaz-politikek nazioartean adosturiko eremu bat hartzen dute barne gutxienez; eremu hori zehaztu egin daiteke eta erretorikoa da, baina 2000ko irailean egin zen *Milurteko Adierazpenean* finkaturiko Garapen Helburuei buruz adostasun onargarria lortu dela erakusten du. Helburu horiek lortzeko politika efizienteak gauzatzea, ordea, beste kontu bat da. Hala ere, Garapenerako Finantziarioari buruzko *Monterreyko Konferentzian* neurri lotesle, neurgarri eta ebaluagarriak izan ez arren, garbi dago *Milurteko Adierazpeneko* Helburuak adostasun zabala pizteko modukoak direla berez.

Migrazio-politikei dagokienez, nahikoa izango da adierazpenen mailan ere antzekorik ez dagoela esatea. Migrazio-politikak (eskualde-eremuetatik haratago, Amsterdam-en ondorengo EB kasu, eta horretan ere irismen mugatua dute) Estatu bakoitzaren subiranotasun-ekimenean eskuetan daude, eta ondorioz, Estatuak harrerako herrialdeen interes partikularren arabera kudeatzen dute immigrazioa. Migrazioaren erregulazioan *ez dago nazioartean adosturiko antzeko helbururik*, eta are gutxiago, garapenerako lankidetzaz bideraturiko helburutzat har daitekeen helbururik. Hori abiapuntua izanik, lagundutako lankidetzaz benetako edukirik gabeko adierazpen erretoriko hutsen mailan edo tokiko garapenerako ekimen partzialen eremuan (batzuetan bai eta partikularrean ere) geratzen da; ekimen horiek estimagarriak badira ere, ez dute zalantzan jartzen erregulazio-esparru orokorra.

IV

Badirudi azken aldian gauzak aldatzen hasiak direla. Aldaketa horretan, oso lagungarria izan da, adierazpen publikoen azpitik, gobernuak —batez ere EBkoek— onartzen hasi izana mugak kontrolatzea kezka nagusitzat duen kudeaketak porrot egin duela. Espainiaren kasua paradigmaticoa da. Atzerritarrei buruzko legeak ustez “dei-efektu” ospetsua deuseztatzen bideratzeko asmoz behin eta berriz aldatu diren arren,

dagoeneko milioi bat inguru etorkin irregular ditugu. Egoera hori eutsiezina da, eta beste askotan bezala, berriz ere erregularizazio-prozesu bat ezarriko zaio, orduan ere "azkena" izango dena. Zalantzarik gabe, "dei-efektuaren" aurka egitea alferrikakoa da alde zuzenetik efektu horren arrazoiak aintzat hartzen ez badira; beharrezkoa izan da horretaz jabetzea egoera pixkanaka aldatzen hasteko.

Egia esan, Batasunaren ikuspegian, noizbehinka izan dira migrazioak eta garapenerako lankidetzak uztartzen dituzten alde zuzenetik aipamenak. Baina 1999ko urrian egin zen Tampereko Gailurra historikoa izan zen, hark ekarri baitzuen gauzak ikusteko modu berri hori. Amsterdamen hasi zen auzi hori batasun-mailako bihurtzeko prozesua eta Tamperen gauzatu, immigrazioak eta asiloak *"hurbilketa orokor berria"* (*a new comprehensive approach*) behar zutela ikusita. *"Hurbilketa orokor berri"* hori definitu behar duten elementuen artean, lehena "zero immigrazioa" izeneko tabua apurtzea da, lehen aldiz esplizituki apurtu ere; bestela esanda, Europak langile etorkinak behar dituela eta immigrazioak ekarpen estrategiko handia —ekonomikoa nahiz demografikoa— egin dezakeela onartzea da. Hori oinarritzat hartuta, honako hauek onartu ziren Tamperen: *"asiloari eta migrazioei buruzko politika komuna"* definitu behar dela, eta politika hori *"askatasun, segurtasun eta justizia eremu"* baten esparruan eraiki behar dela. Aurrerapen kualitatiboa izan da TREViko taldeak, bai eta Maastrich-eko garaian ere, immigrazioa terrorismoarekin, indarkeriarekin edo prostituzioarekin lotzen zuenetik. Are adierazgarriagoa da —kasu honetan ere lehen aldiz— espresuki onartu izana migrazio-politika erreaktibo hutsak eta epe laburrekoak alde batera uzteko beharra eta migrazioaren kudeaketa estrategia *"global"*, koordinatu eta epe luzerakoarekin lotu izana. Nabarmendu egin da migrazioak gertatzen diren nazioarteko testuinguruak aintzat hartzeko beharra, eta, adierazpen gisa behintzat, migrazioak harrerako herrialdeen ikuspegitik soilik ikusteari utzi zaio eta *"sorterriekin lankidetzaren erregimen bat"* ezartzeko beharra dagoela ulertu da.

Testuinguru horretan hasi da immigrazioari buruzko Batasunaren ikuspegia honako kontzeptu hauek barne hartzen: *"lankidetzaren erregimen bat"*, *"erantzunkidetasuna"* edo *"lagundutako garapena"*. Horietako bat, lagundutako garapena, bereziki landu da. Oraingoan, aditza eman beharra dago Batasunaren ikuspegian barne hartzean, immigrazioak garapenerako lankidetzarekin duen lotura esplizitua hezurramitu dela. Dena den, baliotsuak izan litezkeen alderdiak dituen ekimena modu erretorikoan eta faltsuan erabili dute Batasuneko eta estatuko literaturak (ikus, Espainian, GRECO Plana).

Izan ere, Tampereren ondoren, Batasuneko literaturan izugarri areagotu dira "immigrazioa" "lankidetzarekin" lotzen duten aipamenak. Baina, zer ekarri dute praktikan "*migrazioa kudeatzeko erantzunkidetasunaren*" edo "*sorterriekiko lankidetzaren*" aldeko aldarrikapenek? Kasurik onenean, konpromiso erretorikoa, eta, ondorioz, kuantifikaturik gabeko eta ebaluatu ezin den konpromisoa "*pobreziaren aurkako borrokarako*" edo "*giza eskubideak defendatzeko*". Eta hori ere, fluxuak Europarantz bidaltzen dituzten herrialdeetara bideratu da lehentasunez. Azken batean, espresuki honako hauetara bideraturiko lankidetzak ekarri dute: sorterrietan, biztanleria "*egonkortzea*" eta Europarantz dagoen migrazio-presioa murriztea ahalbidetzen duten baldintzak lortzea. Kasurik txarrean, sorterriak immigrazio klandestinoaren eta mafien aurkako borroka aktiboan inplikatzeak, haien mugak kontrolatzeko eta itzularazitakoak onartzeko eskaera da "*erantzunkidetasuna*". Bestela esanda, beste "*baldintzatzaile-mota*" bat —maltzurra, kasu honetan—, kontrol moduan ulerturiko "*erantzunkidetasunak*" baldintzaturiko "*lankidetzak*" da. Gauzak horrela, logikoa da "lankidetzak" horren onuradun ustez izan behar duten herrialdeetako askok atxikimendu txikia agertu izana proposamen horrekiko. Izan ere, honako hau galdetu behar dugu: nork laguntzen dion nori jokaleku horretan?

Bi fenomeno horiek batera aintzat hartzeko beharraz jabetzen hasi gara. Baina nolako lotura ezarri nahi da? Horixe da eztabaidaren gakoa. Helburua Iparreranzko migrazio-presioa deuseztatzea bada, garapenerako lankidetzaren balioa instrumentala da guztiz. Horrelako planteamendua ez da onargarria etikaren aldetik; izan ere, berez eska daitezkeen aintzat harturiko eskubideak dira pobrezia ezabatzea eta garapena, eta ezin dira beste helburu batzuek lortzeko baldintzatu. Baina horrez gain, hutsala da planteamendu hori; izan ere, sobera argudiatu dago garapenaren lehen etapek ez dutela emigrazioa eteten; aldiz, bultzatu egiten dute epe labur eta ertainean. Hori jakina da, eta ez zen gogorarazteko beharrik izango diskurtso politiko nagusiaren oinarri ideologikoa lehen aipaturikoa ez balitz, hots, garapenerako ematen den laguntza migrazioak etetera bideratuta dagoela.

Proposatzen dudana norazko-aldaketa lotura horren nondik norakoari buelta ematean datza. Bestela esanda, migrazio-fluxuen kudeaketa garapenerako lankidetzak efizienteagoa lortzeko tresna bihurtu behar da. Txosten honetan hartu dugun diskurtso-mailan, nire ustez, "lagundutako garapenaren" kontzeptuaren mamia lotura

horri buelta ematea dela esateko moduan gaude. Beste modu batean azaltzeko, *sorterrien garapenerako lankidetzan aritzea helburu nagusia izanik, horretara bideraturiko migrazio-politikak gauzatzeko borondatek sorturiko jardun-sorta baino ez da lagundutako garapena*. Txostenaren hasieran eginiko galderari berriz ere helduz, "lagundutako garapena" terminoaren bitartez, dagoeneko nabaritu dugun behar bati izena jarri diogula uste dugu; behar hori zirkulu kontzienteenetan nabaritu dugu behintzat: "immigrazioa" eta "garapena" lotzea eta migrazioaren kudeaketa sorterriekin lankidetzan aritzeko tresna bilakatzea. Nire iritziz, horixe da terminoak lortu duen onespeneraren arrazoia.

Azken batean, ez da ezer berririk proposatu. Besterik gabe, adierazpen-mailan dagoeneko itunduta dauden gauzak aintzakotzat hartzen ditugu. Montereyn *"herrialde garatu eta garapen-bidean dauden herrialdeen artean itun berri bat"* eratzeko beharra onartu zen, Milurteko Helburuak lortzera bideraturiko ituna lortzeko beharra onartu ere. Aldiz, ikusi dugunez, migrazioaren fenomenoarekiko *"hurbilketa berria"* eratzeko beharra onartu zen. Aukeraturiko terminoetan, bi adierazpen horiek bi erronken kudeaketari eman beharko litzaiokeen berrikuntza eta haustura kutsua nabarmentzen dute; alderantziz esanda, orain arte nagusitu den orientazioaren porrota onartzea da hori. *"Garapenerako nazioarteko harreman ekonomikoen arkitektura berri baterantz"* aurrera egiteko eskakizuna da egoera hori bukarazteko bide bat. Eskaera horrek gero eta oihartzun handiagoa du nazioarteko foroetan, eta dagoeneko barne hartua dute erakundeen erretorikan; hala ere, horrek ez du esan nahi hori eraikitzeko urrats nabarmenik egiten denik.

V

Harturiko konpromisoak gauzatzeko dagoen borondate politikoa da gakoa; izan ere, konpromiso horiek betetzeko, aldaketa garrantzitsuak egin behar dira nazioarteko migrazioen kudeaketan eta garapenerako lankidetzako politikan. Hau ez da garapenerako lankidetzako politikak —politika horien efizientziarik eza salaketa ugari jasotzen ari da— zehatz-mehatz aztertzeko unea. Egia da azken urteotan aurrerapen garrantzitsuak egin direla, baina horiek ekimen sektorialak dira, eta zatikakoak direnez, eraginkortasun murriztagoa dute; horrez gain, horien arteko ondorio hutsalak izaten

dira askotan. Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) bitartez ematen diren Laguntza-fondo espezifikoak baino zerbait gehiago izaten hasi behar du garapenerako lankidetzak. Proposatzen den eraikin berrirako herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko harreman ekonomiko guztien dimentsio *integratua* hartu behar da barne ezinbestean. Kudeaketa integratu horrek Kanpo Zorren kudeaketa hartu behar du barne, bai eta munduko merkataritzaren egungo erregulazioan egin beharreko aldaketak eta kapitalaren nazioarteko fluxuen gobernua ere; eta kudeaketa integratu horrek baino ez du ahalbidetuko politika sektorial guztien arteko koherentziarik ezak eta kontraesan nabarmenak ezabatzea.

Argi dagoenez, Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) ezinbesteko finantziario-tresna da oraindik ere. Hala ere, 1990etik 2001era bitartean, GLBren bitartez GLOk egin duen ahalegina areagotu ordez, nabarmen murriztu da. 1990ean, BPGaren % 0,33 zen; 2001ean, % 0,22, eta 2002an, % 0,23; guztizko bolumena, berriz, 58.274 dolar da. Monterreyko Konferentzian, laguntzaren bolumena areagotzeko konpromisoa hartu zuten herrialde emaleek, euren BPGaren % 0,26ra iritsi arte 2006rako. Ez dirudi bolumen hori lor litekeenik, baina lortuko balitz ere, urtean 16.000 milioi dolar gehiago bideratzea baino ez litzateke izango. Hala ere, kalkulatu da Milurteko Helburuak lortzea ziurtatzeko behar den finantziario gehigarria gaur egun bideratzen den Laguntzaren bikoitza dela, hau da, urtean 40.000tik 60.000 milioi dolarrera bitarte (MB, 2002). Hori lortzeko, ahalegina BPGaren % 0,5eraino areagotu beharko litzateke, hau da, konpromisoan ezarritako % 0,26aren bikoitza; argi dago % 0,7a bideratzeko helburutik oso urruti dagoela hori.

Laguntzaren bolumena areagotzea, beraz, premiazko baldintza bat da, baina hori ez da guztia. Hori bezain beharrezkoa da horren efizientzia eta orientazioa hobetzea. Premiazkoa da Laguntza alde biko merkataritza-akordioetara lotzen duen nondik norakoa ezabatzea. Behin eta berriz esan denez, *"loturiko lankidetzak garestia da herrialde hartzaileentzat, baliabideak merkeago erabiltzeko aukera mugatzen baitu. Munduko Bankuak egin berri duen azterlan baten arabera, lotu gabeko laguntza loturikoa baino % 25 efizienteagoa da"* (PNUD, 2003:148). Horren arrazoiak honako hauek dira, besteak beste: Laguntza alde biko merkataritza-akordioei lotuta, laguntza hori jasotzen duten herrialdeek euren garapen-prozesuetan estrategikoak ez diren ondasunak inportatu behar izaten dituzte, edo nazioarteko merkatuetakoak baino askoz ere prezio altuagoetan erosi behar izaten dituzte; bestalde, akordio horiek

nazio-mailako inbertsiorako asmoa kendu eta merkatu propioak sendotzea eragozten dute. 1990etik 2002ra bitartean lotu gabeko laguntzaren bolumena % 68tik % 85era hazi den arren, oraindik ere badira loturiko laguntzaren portzentaje guztizkoaren % 20raino igotzea ahalbidetzen duten praktika ilunak (PNUD, 2003:148).

Herrialde emalleek Laguntzaren orientazioa eta laguntzaren helburua aldatu behar dituzte. Milurteko Helburuak lortuko badira, GLO herrialde pobreenetara bideratu behar da lehentasunez. Orain arte egin denaren guztiz kontrakoa, hain zuzen ere.

GLOren hartzaile garbiak eskualdearen arabera, 1990 eta 2001

Eskualdea	Hartzailearen per capita		BPGaren portzentajea	
	1990	2001	1990	2001
Garapen-bidean dauden herrialde guztiak	15	10	1,61	0,81
Herrialde gutxien aurreratuak	33	20	12,92	8,45
Sahara azpiko Afrika	34	21	6,13	4,55

Iturria: PNUD, 2003:147

Ikusten denez, herrialde hartzailean Laguntzak duen eragina Laguntza per capita terminoetan edo herrialde horien BPGaren portzentajearen arabera neurtzen badugu, 1990etik 2001era bitartean Herrialde Gutxien Aurreratuak (HGA) 13 puntu jaitsi dira Laguntza per capitari dagokionez, eta ia lau puntu eta erdi herrialde haien BPGaren portzentajeari dagokionez. 1990ean herrialde haiek GLO guztiaren % 28 jaso zuten; 2001ean, ordea, portzentaje hori % 23ra jaitsi da; hala ere, 2001ean, berriz ere igo da % 26raino.

Dena den, GLO areagotzea ez da berez nahikoa izango garapena ziurtatzeko. Izan ere, gainerako politika sektorialek zapuztu egiten dituzte izan litezkeen onurak; politika horien artean, zorraren kudeaketa eta nazioarteko merkataritza paradigmaticoak dira. Nekazaritza-arloko merkataritza izan da beti oztopo nagusia. Arrazoi osoz. Garapen-bidean dauden herrialdeen arteko merkataritza-harremana euren lehengaien eta oinarrizko produktuen esportazioek baldintzatzen dute (ehun-gaien eta produktu manufakturatuen esportazioak gero eta garrantzi handiagoa dute); hain zuzen ere, sektore horietan dituzte konparazio-abantailak eta horietan dute lehiakorrek izateko

aukera. Herrialde garatuen protekzionismoak —batez ere EBren eta AEBren protekzionismoak— eragozten die hori lortzea, bai eta herrialde horiek inposatzen dituzten arau asimetriko bidegabeek ere. Munduko merkataritza eraldatzen duten eta oinarrizko produktuen prezioak hondoratzen dituzten kuota, muga-zerga eta subsidioen konbinazio baten bitartez babesten dituzte euren nekazaritza-produktuak herrialde garatuek. "1999. urtearen bukaeran, kakaoaren prezioa % 48 jaitsi zen, tearena % 36 eta kotoiarena % 46, 1997ko prezioekin alderatuta" (MB,2000:174). Zerrenda mugagabea da, baina horren ondorioz, garapen-bidean dauden herrialdeentzat trukearen baldintzek okerrera egiten dute, horien esportazio-errentak murriztu egiten dira, eta beraz, egiten dituzten inbertsioak finantzatzeko behar dituzten baliabideak ere bai.

Ikusi dugunez, 2002an Laguntzaren bolumena ELGEko herrialdeentzat 58.274 milioi dolar izan zen. Baina herrialde horiek euren nekazaritza-produkzioarako bideratu zituzten diru-laguntzen zenbatekoa soilik 330.000 milioi dolar izan zen. Nekazaritzak EBren BPGaren % 2 baino gutxiago ematen du; hala ere, Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) 43.000 milioi euro bideratzen ditu urtean zuzeneko laguntzetarako, hau da, Batasunaren aurrekontuaren % 46. Batasunaren fondoetako zuzeneko laguntzei Estatukide bakoitzak emandako laguntzak batzen bazaizkie, kalkulatu da bideratzen den kopurua 43.000 milioi izatetik 90.000 milioiraino iritsiko dela. 2000. urtean, esnekietarako diru-laguntzetan soilik EBk 913 dolar bideratu zituen behi bakoitzeko. Sahara azpiko Afrikan, ordea, batez besteko per capita diru-sarrera 490 dolar izan zen eta EBk eskualde horretara bideratu zuen GLOren zenbatekoa 8 dolar izan zen biztanle bakoitzeko.

Datuak bukaezin bezain eskandaluzkoak dira. Herrialde garatuek merkataritzan erabiltzen duten *dumping*-ak ekitate-baldintzetan lehiatzeko aukera kentzen die garapen-bidean dauden herrialdeei, prezio lagunduak dituzten nekazaritza-produktuez gainezka baitituzte merkatuak; horren guztiaren ondorioz, milioika nekazarik gosetea pairatzen dute, eta kasurik onenean, euren lurra utzi eta emigratzera behartuta egoten dira. "Garapen-bidean" dauden herrialdeak garatzea ezinezkoa bihurtzeko pentsaturiko merkataritza-erregulazioaren adibide bikaina dugu hori. Iparrak arrazoi onak ditu Laguntzaren herrialde hartzaileei "ondo jarduteko" praktikak eskatzeko, baina are arrazoi hobekak ditu bere buruari garapena helburutzat duten nazioarteko harreman ekonomikoak "ondo goberna dezala" eskatzeko.

VI

Baina lankidetzaz-agenda oro osatu gabe geratuko da egiturazko elementuen artean nazioarteko migrazio-mugimenduen kudeaketa barne hartzen ez bada. Monterreyn aldarrikaturiko garapenerako *"itun berriak"* eta migrazioarako Tamperen proposaturiko *"hurbilketa berriak"* bat egiten dute herrialde garatuen eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko *"arkitektura berri"* integratu eta globalean, lankidetzaz helburutzat duen arkitektura berriari, alegia. Nazioarteko migrazioak nazioarteko egitura ekonomikoaren logikak eragindakoak direnez, eta herrialde igorleentzat garapena eragiteko ahalmena duten tresna izan daitezkeela ikusi denez, hemen ere migrazioen eragin positiboak areagotzen dituzten "ondo gobernatzeko" praktikak ere ezarri beharra daude.

Beraz, gakoa honako hau da: herrialde igorleen garapenerako modu efizientean laguntzen duten migrazio-politikak nola definitu. Horixe da funtsezko galdera; izan ere, lagundutako garapenaren terminoetan definituriko migrazio-kudeaketak izan behar duenaren funtsa da. Ere horretan murgiltzeko, nire ustez, ezinbestekoa da lagundutako garapenari buruzko programaren edukia ulertzeko ahalegin aitzindaria — zalantzarik gabe, ahalegin landuena da— berriz ere aztertzea. Näirrek, Frantziako gobernuko Migrazioetarako eta Lagundutako Garapenerako Ministerioen arteko Eginkizunaren arduradun gisa, 1997an¹ egindako programaz ari naiz, jakina. Programa horren lorpenak eta mugak egiaztatu ondoren, nire ustez, lagundutako garapena helburutzat duten migrazio-politikek izan beharreko ildoetako batzuk aurreratuko ditugu.

Näirrek diseinatu zuen moduan, programak nahiko aurrerapen handiak ditu; hala ere, hainbat puntu ilun ere badu, eztabaida piztu duten puntu ilunak izan ere. Näirren iritziz, *"Frantziak dituen beharrei erantzuten dienez, immigrazioa ekarpen erreala bada, ezin die inola ere desabantaila eragin sortzeri"*. Arrisku hori ez da irudimen hutsa; izan ere, *"klase kualifikatuen emigrazioa ... odol-jario sozioekonomikoa da herrialde horientzat ... eta Hirugarren munduari lapurretan egiteko beste modu bat izatera*

¹ Näir, Sami (1997): *Rapport de bilan et d'orientation sur la politique de codéveloppement liée aux flux migratoires*. Mision Interministerielle "Migrations/Codéveloppement". Kanpo Gaietako Ministerioa. Paris.

irits daiteke". Garbi dago hori aintzat hartzea ez dela gauza hutsala; izan ere, esan dugunez, honako a priori hau izaten da abiapuntua praktikan: immigrazio-politikak alde bakarrak definitu behar ditu, harrera-herrialdeetako lan-merkatuen interesak soilik kontuan hartuz.

Näirren proposamenaren arabera, "lagundutako garapenaren" oinarria sorterriek eta harrerako herrialdeek "**interes komunak**" izatea da, eta horixe da, hain zuzen ere, proposamen hori politikoki erakargarri bihurtu duen alderdietako bat. Ideia hori nabarmendu beharra dago; izan ere, interes konpartituak barne hartzen dituen eremu hori aintzat hartzen ez bada, praktikan, Näirren proposamenaren edukia hutsala da. Beraz, honako galdera hau da funtsezkoa: zeintzuk dira zehazki "*interes komunak*" eremu hori mugatzen duten ildoak? Näirrek argi eta garbi erantzun du: "*Frantziak eta sorterriek elkarrekin duten interesa immigrazioa garapen-faktore bihurtzea da, horrela migrazio-fluxuak egonkortu egingo baitira sorterrian eta etorkinak Frantzian gizarteratuko dira*". Ideia hori geuk azpimarratu dugu; hala ere, horren bidez, garbi geratzen da zein den lagundutako garapenaren helburu nagusia: euren garapenaren bitartez, sorterriek "*migratzaile joan litezkeenak euren nazioan bizitzeko gizarte-baldintza egokiak sortu*" ahal izatea. Biztanleria bere sorterrietan egonkortzea da Näirren programaren espresuki aintzat harturiko helburua.

Horregatik, zentzuzkoa da proposamen hori; izan ere, "*lagundutako garapeneko politikak ez du etorkinak euren sorterrietara itzultzea bultzatzeko helburua, eurek nahi ez badute*", baina argi eta garbi adierazten du migrazio-fluxuen politikak ez duela "*etorkinak Frantzian behin betiko instalatzea bultzatzeko helburua izan behar, sorterriara itzultzekoa baizik*". "*Etorkinak euren sorterriara modu programatuan itzultzeko helburuz*" proposatu zuen Näirrek "kuoten" politikaren ordeztasun —harrerako herrialdeetako lan-merkatuek eskatzen dituzten kualifikazioen arabera eraturakoak—, "kontingenteen" politika —Frantzian prestatzeko helburuz, langileen stock bat hartzeko eratu— erabiltzea. Hortaz, logikoa da proposatzea Frantzian prestatzeko kontingente moduan harturiko etorkinen estatusak "*aldi baterakoa eta sorterriara itzultzerantz bideratua izan behar duela argi eta garbi*".

Näirrek nabarmendu duenez, lagundutako garapeneko edozein programa porrotera bideratuta egongo da aldeztatik etorkinen eta horien elkarten parte-hartze aktiboa barne hartzen ez badu. Hori nabarmentzea izan da, hain justu ere, lagundutako

garapenaren ideia zabal onartzeko lagungarria izan den —arrazoi osoz lagundu ere— bigarren alderdia; izan ere, begi-bistakoa da, baina praktikan ahaztu egiten da. Näirren esanetan, etorkinak *"lagundutako garapenaren bektoreak"* dira. Garapenerako lankidetzako politika klasikoek ez bezala, lagundutako garapenak honako hau du abiapuntutzat: premia-premiazkoa da etorkinen inplikaziorako pizgarriak ematea horien sorterrietara bideraturiko garapen-programetan. Erakundeen ekimenak eta programen finantziazioa ez dira efizienteak izango —askotan gertatu den bezala— edo hutsalak suertatuko dira, baldin eta etorkinak *"garapenaren alderdi kontziente"* bihurtzea lortzen ez badugu. *Honako hau da gakoa: ezein laguntza-motak... ezin du etorkinaren beraren ekintza ordeztu. Horixe da operazioaren bihotza eta arima. Etorkinen parte-hartze aktiboa da eraikinaren sendotasunerako `sine qua non´ baldintza".*

Azkenik, zorionez gaur egun eztabidaezintzat hartzen den zerbait nabarmendu zuenean ere asmatu zuen Näirrek. Lagundutako garapeneko programetan *"ez dute Estatuak soilik esku hartu behar"*. *Beste alderdi batzuk ere hartzen dute parte eta politika horren eraginkortasuna nabarmen sendo dezakete: eskualdeko agintariek, GKEek eta legezko etorkinen elkartzemugimenduak, enpresa pribatuek, unibertsitateek eta prestakuntza-ikastegiak eta lanbide-erakundeek".* Gizarteratzeaz, koordinazioaz eta Estatuaren ekintzak berezkoa duen bertikaltasunaz gain, Näirrek asmatu egin zuen agintari politiko deszentralizatuen inplikazioak eta gizarte zibilak berak dakarten horizontaltasuna nabarmendu zuenean; izan ere, *"praktika demokratiko zibilak bultzatzen dituzte, tokiko aktoreen zeregina sendotzen duten eta gizarte zibil batetik bestera zuzeneko harremanak garatzen dituzten praktika demokratikoak bultzatu ere"*.

Espero zitekeenez, nola *"migrazio-fluxuak sorterrian egonkortzeko"* helburua, hala lagundutako garapeneko politikari loturiko finantziatoria bildu nahi dutenei eman behar zaien *"aldi baterako eta sorterrira itzultzera bideraturiko"* estatusa izan dira, ezbairik gabe, Näirren proposamenaren punturik eztabaidatuenak. Nire ustez, ordea, arrazoi sendorik badago bigarrenari buruz hausnartzen jarraitzeko eta oso arrazoi gutxi dago lehenengoa ontzat emateko. Baina oraingoz puntu horiek alde batera utzita, nire ustez gutxiago nabarmendu da proposamenaren mamia eta arreta jarri behar dugun alderdia. Lehen aurreratu dudanez, sorterriek eta harrerako herrialdeek *"interes komunak"* dituztela onartzea da Näirrek proposaturiko lagundutako garapenaren formulazioaren ardatza. Kontingente-politikaren auzira ekarrita, galdetu beharra dugu

zeintzuk izan daitezkeen sorterrira itzuli behar duten neoetorkinek jaso behar duten prestakuntzaren kualifikazioak, sorterrirako zein helmuga-herrialderako interesgarriak izan behar duten kualifikazioak, alegia. Näirrek du horren erantzuna: *“lagundutako garapenak gure beharrak eta sorterrienak uztartzen ditu”*. Eta, sorterrira itzuli behar dutenez, *“antolaturiko joan-etorri hori benetako laguntza da garapenerako”*.

Hitzak egokiak badira paperean, errealitatean ere egokiak izango direla imajinatzean datza ilusioa. Garbi dago sorterrietan eta harrerako herrialdeetan eskaera handia duten kualifikazio-sorta handia identifika dezakegula, eta lehiakorrak ez diren *“interes komunak”* jokalekua eraiki daitekeela horietarako. Baina hori ez da kontua kasu guztietan. Sarritan, garapen ekonomikoaren etapa historikoan sorterriek eskatzen dituzten kualifikazioek ez dute merkatu izaten harrerako herrialdeetan. Beraz, honako hau galdetu behar dugu: harrerako herrialdeek hartuko al dute, hortaz, etorkin berriak kualifikazio-profil horretan ere prestatzeko konpromisoa? Hori ez da, jakina, *haien* interesa. Eta alderantziz, kualifikazio batzuek eskaera handia dute sorterrietan eta harrerako herrialdeetan. Besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu: osasun-arloko langileak Afrikan edo IT (Informazioaren teknologia) langileak Indian, Pakistanen eta Txinan, esate baterako. Horiek alde egitea giza kapitalaren galera izugarria da sorterrientzat; are gehiago, prestakuntza sorterrien kargura egin bada. Honako hau galdetu behar dugu: hortaz, herrialde horiek euren garapenerako kualifikazio estrategikoa duten profil horretako langileei bertatik irtetea eragotziko al diete? Jakin badakigu herrialde garatuak euren mugak eskuzabaltasunez irekiko dizkietela, eta, horrez gain, *“Hirugarren Munduari lapurretan egiteko”* (Näir) modu berri bat erabiliz, lehian arituko direla euren artean ahalik eta horrelako etorkin gehienak erakartzeko. Egin egiten dute hori. Baina orduan beste galdera bat sortzen da. Näirrek proposaturiko lagundutako garapenaren filosofian, harrerako herrialdeek onartuko ote dituzte kualifikaziorik gabeko etorkinak, kualifikazio estrategiko horietan prestatu eta prestatutakoan, sorterrira itzultzera gonbidatzeko? Ez dirudi aukera horiek bi alderdien *“interes konpartituen”* jokalekuan kokatzen direnik.

Näirrek eratu zuen moduan, lehiakorrak ez diren *“interes komunak”* badirela abiapuntutzat hartzen badugu baino ez du funtzionatzen lagundutako garapenaren proposamenak. Eta askotan hala izan arren, arazoak ere sortzen dira, hain zuzen ere, interesak baliokideak izan ezin direnean edo *“konpartituak”* izan ordez, *“lehiakorrak”* direnean. Nire iritziz, kasu honetan, bi aukera daude: lagundutako garapenerako

proposamenak funtzionalki erabilgarria izateari uztea, edo sakon birdefinitu behar da. Horregatik, gauzak zehaztu gabe uzten direnean, zoritxarreko ondorioa izaten da, eta horixe gertatu da: harrerako herrialdeek hasieran estimagarria zen ideiaaren interpretazio faltsua egin dute azkenenean, *pro domo sua*.

Agian arrazoa izango dute lagundutako garapenari buruz erakundeek egiten duten erretorikaren atzean, etorkinak sorterrira itzultzea bultzatzeko beste ahalegin bat, azken ahalegina, ezkutatu delako susmoa dutenek. Era horretako ekimenak ez dira berriak historian. Izan ere, 1984rako, etorkinak sorterrira itzularazteko proiektu bat abian jarria zuen Frantziak. Ekimen horrek porrot izugarria izan zuen: sorterrira itzulitako kopurua hutsala izan zen. 1997an, langabezia-tasak % 12tik gorakoak ziren artean Frantzian. Aldibaterakotasuna eta sorterrira itzultzea nabarmentze hori, askoren ustez, ideia zahar bati berriro heltzeko saiakera baino ez zen, kasu horretan lagundutako garapenari buruzko erretorikaz mozorroturiko saiakera, alegia. Kontua ez zen orduan harrerako herrialdean geratzen ez uztea, Frantzian prestatutako etorkinak sorterrira itzul zitezkeen bultzatzea baizik, betiere horien sorterrien garapenerako "bektore" izan zitezkeelako ideia "goraipagarria" erabiliz. Ohartuta nago interpretazio hori ez dela Näirren asmoak merezi duena, bai eta horren proiektuak, ikusi dugunez, elementu estimagarriak dituela ere. Proiektu horrek izan duen erabilera politikoa, ordea, beste kontu bat da.

Gauzak pixkanaka aldatu dira orduz geroztik. Bertsio berrietan, lagundutako garapenak dagoeneko ez du etorkinak sorterrira behin betiko itzultzeko helburu inplizitua. Aldiz, herrialde igorleekin adosturiko eta harrerako herrialdeekin batera finantzaturiko proiektuetan lankidetzan aritzea da kontua, bai eta etorkinak prestatzea eta etorkin horiek aipaturiko proiektuetan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzea ere; era berean, proiektu horietaz ardura daitezzen, euren sorterrietara borondatez aldi baterako joateko finantziazioa hartuko dute barne proiektuok, eta, eginkizunak betetakoan, harrerako herrialdera itzultzeko aukera izango dutela bermatuko zaie.

Egungo bertsio horiek aurrerapen nabarmenak dituzten arren, nire ustez, lagundutako garapenaren ideiak ezin du tokiko mailako alde biko akordioak soilik barne hartzen jarraitu. Horrelako programek funtsezko garrantzia badute ere, eta lankidetzarako tresna erabilgarriak izaten jarraituko duten arren, nire ustez, premiazkoa da irismen handiagoko erregulazio-esparru batean kokatzea. Horregatik, lehenago egin dugun

galderari helduko diogu berriz ere. Nolako aldaketak egin behar dira nazioarteko migrazioen erregulazio-esparruan, immigrazio-politikek lagundutako garapena benetan helburutzat dutela esan ahal izateko?

VII

Jakina, nire asmoa ez da erantzun biribila jasotzea. Baina nire ustez, ildo batzuk aurrera daitezke. Lehenik eta behin, goitik beherako aldaketak egin behar dira oinarrizko bi alderditan gutxienez. Aurrena, beharrezkoa da migrazio-politikek izan behar dituzten ***helburu nagusiak*** berraztertzea: harrerako herrialdeen interesak soilik babestetik, garapen-helburuak lortzeko *lehentasuna* izatera pasatu behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da migrazioaren kudeaketaren grabitazio-orbita aldatzea: barne-arazoetako agendaren nagusitasunaren ordeztu, migrazio-politikak lankidetzaren eskumen-eremuan kokatu behar dira lehentasunez. Hori esanda, bi aldeek konpartituriko "interes komunak" dituztelako ideia lasaigarria da, eta politikoki eztaba daezina da, jakina. Kontua da interes guztiek ez dutela interes-maila bera. Lagundutako garapena kontuan izaten jarraitzea merezi izango du interes konpartitu guztien artean, lehena Hegoaren garapena dela onartzen bada. Horregatik, nire ustez, zentzuz taxaturiko lagundutako garapeneko politika batek lehenik eta behin orain arte "*interes konpartituak*" egoteari eman zaion garrantzia erlatibizatu egin behar luke. Halako interesak egon badaude eta aztertu egin behar dira; hala ere, nire ustez, interes konpartitu eta berdintsuak badirela onartzearen ordeztu, honako honek definitu behar du lagundutako garapena: Hegoaren garapen-eskaerei *per prius* erantzutera bideraturiko migrazio-politikak adostasunez ezartzeak.

Lagundutako garapenerantz bideraturiko migrazio-politikek interes *konpartituei* eustez gain, honako hauek ere izan behar ditu ezaugarritzat: *lehentasunezko* interesei eustea, sorterrien garapen-eskaerei *lehentasunez* erantzutea, lehentasunezko helburu horiek lortzeari begira lagungarriak diren etorkinak hartzeko irizpideak definitzea —helburu horiek lortzea oztokatzen duten irizpideak ezartzearen ordeztu—, eta etorkinak zein horien elkarrekin euren sorterrietako garapen-eragile aktiboak bihurtzen dituzten ekimenak gauzatzea. Berez, honako hauek nabarmendu behar dira: *aldebikotasuna* eta *adostasuna* helburuak definitzerakoan, migrazio-fluxuen *kogestioa* eta programak ondo gobernatzeko *erantzunkidetasuna*. Harrerako Estatuak ezin dute jarraitu etorkinak

hartzeko eta harrerako herrialdean geratzeko irizpideen definizioa eskumenekoa izatea baliatzen; aldiz, sorterrien garapena bultzatzeko konpromiso loteslea hartu behar dute.

Bigarrenik, beharrezkoa da hori gobernatzeaz arduratuko diren **Nazioarteko Erakunde eta Instituzioak** sortzea. Gero eta globalizatuagoa eta elkarreraginekoagoa den munduan, eskandaluzkoa da Nazioarteko Zuzenbideak aurrerapen txikiena nazioarteko migrazioen eremuan egin izana, hain justu ere, eta eremu horretan oraindik ere *nazioarteko erregulazio-esparrurik* eta are gutxiago, arautzeko eta gobernatzeko benetako ahalmena duen *nazioarteko erakunderik* ez izatea. Premiazkoa dirudi migrazio-politiken sorburu izan behar duten zuzenbide-printzipioen subiranotasuna berraztertzeak. Gaur egun ezaugarritzat duten aldebakartasuna alde batera utzi behar da. Nazioarteko migrazioen gobernuak ezin du harrerako Estatuaren eskumen eksklusibo eta subiranoa izaten jarraitu. Aldarrikatzen den *"erantzunkidetasuna"* interes konpartituak gauzatzera eta sorterrien eta harrerako herrialdeen artean adosturiko akordioak ezartzera bideratu behar da.

Kontua ez da Estatuari euren subiranotasuna kentzea, "nazioaz gaindiko arau-eremuak" eta gobernatzeko "nazioarteko erakundeak" sortzea baizik. Besteak beste, jardunean honako hau ikasi baitugu: gai horiek Estatu bakoitzaren ekimen subiranoak kudeatu dituenean, nazioen lehentasuna babesteko klausularen ondorioz, arauetan gehiegitan tratatu dira etorkinak arbitrariotasunez, diskriminazioz eta bidegabekeriaz. Kontrolatzeko eta apelatzeko benetako ahalmenik ez duen nazioarteko erakunderik izan gabe, harrerako Estatuak euren nazio-merkatuen eskaerei lehentasuna emateko eta sorterrien interesak ahazteko tentaldian eroriko dira ezinbestean, segurtasun nazionala lehenetsiko dute etorkinen oinarrizko eskubideen aurrean eta entzungor egingo diote diskriminazio-praktikei hori tokiko ekonomientzat onuragarria bada; azken batean, egoeraren arabera dituzten interesak sorterrien garapenerako eskubidearen aurrean lehenesteko tentaldian eroriko dira.

VIII

Lehen aurreratu dugunez, euren horretan utzita, harrerako herrialde bakoitzaren interes partikularren interesen arabera utzita edo merkatuen indarraren arabera utzita, migrazioek sorterrietan duten eragina ez da beti batura positiboa izaten. Eta sorterrien

garapenerako lagungarriak suertatzea edo bertan pobrezia areago dadin eragitea arazo "politiko" hutsa da. Ondorioz, *lagundutako garapenera bideraturiko migrazio-politikek migrazioek dituzten arriskuak txikiagotzera eta eskaintzen dituzten aukerak maximizatzen bideraturiko tresnak ere ezarri behar dituzte*, hasieratik garapen-faktore izateko.

Badakigu "*garapena*" "*hazkundera*" baino askoz ere gehiago dela. Baina hazkunde ekonomikoa ezinbesteko baldintza da garapenerako eta kapitala metatzeko prozesuekin batez ere du lotura. Baina, *giza kapitalari* eta *finantza-kapitalari* dagokienez, nazioarteko migrazioek aukera anibalenteak dituzte, eta lagundutako garapenerako migrazio-politikek integratu eta erregulatu behar lituzkete aukera horiek.

Dagoeneko zeharka aipatu dugun arren, "*adituek alde egitea*" aipatzen da adibide paradigmatico gisa. Eratuta dauden moduan, harrerako merkatuetako lan-premiei buruz alde aurretik egindako diagnostikoan oinarrituta egiten dira kupo-politikak, eta eskatzen diren kualifikazio-profilak eman ditzaketen herrialde igorleetara bideratzen dira, hain justu ere. Batasuneko erretorikak "*sorterriekiko lankidetzak*" aipatzen du, baina eskulana biltzeko irizpideen definizioan, harrerako herrialdeen beharrek eragindako interesak aintzat hartzeko premia baino ez du ikusten. Honako galdera hau sortzen da berriz ere: nork laguntzen dio nori? Izan ere, euren soberakin demografikoek lan-merkatuetan eragindako tentsioak arindu ez ezik, herrialde igorleek euren garapen-prozesuetarako giza kapital estrategikoa prestatu eta barne hartu behar dute.

Datuak ez dira lasaigarriak. Afrikan hainbat gaixotasun —HIESak edo malariak, esate baterako— izugarritzko triskantza egiten ari dira, eta bertako osasun-arloko 100.000 profesionalak baino gehiagok, ordea, emigratu dute Lehen Mundura. 1998an, "*Afrikako 250.000 profesionalak baino gehiagok lan egiten zuten AEBetan eta Europan*" (PNUD, 1999:31). Ikerkuntza zientifikoaren % 20 atzerriko etorkinek egiten dute AEBetan. 1990ean, Silicon Valley industriadeko goi-mailako teknologia-industrietako eskulanaren % 30 atzerriarrek osatzen zuten, eta "*1995etik 1998ra bitartean Silicon Valleyn sortu ziren enpresa berrien % 30 txinatar eta indiar etorkinek sortu zituzten*" (PNUD, 2004:45). 1990ean, AEBetan emandako ingeniari-doktoretzen % 62 atzerriko ikasleek egin zituzten (ibid.:102). Batzuk sorterrira itzultzen diren arren —eta hori sorterrien garapenerako lagungarria da—, goi-mailako kualifikazioa duten etorkin

gehienak harrerako herrialdeetan geratzen dira. Izan ere, doktoretza egin zuten horien % 70 betiko geratu ziren ABEetan bizitzen.

Giza kapitalaren halako drainatze handiak ondorio suntsitzaileak ditu sorterrientzat, euren garapen-prozesuetan behar dituzten baliabide estrategikoak kentzen baitzaizkie horrela. Ondorioz, garapenerako lankidetzak helburutzat duten migrazio-politikek *eraginaren azterketa* hartu beharko lukete barne giza kapitala biltzeko politikean. Premiazkoa da konpentsazio-mekanismoak ezartzea honako hauek bateragarri bihurtzeko: langile kualifikatuak euren aukerak herrialde garatuetan hobetzeko duten eskubidea eta langile horiek prestatzeko sorterriek inbertituriko baliabideak konpentsatuko dituzten itzulerak lortzeko sorterri horiek duten eskubidea, langile kualifikatu horiek galtzeak oztopatu egiten baitu sorterriek garatzeko egiten duten ahalegina.

Agian, horrelako proposamen bat teknikoki ez da ezartzen erraza izango, baina argi dago proposamen hori bideragarri egiteko adina mekanismo badela, horretarako borondate politikorik izanez gero. ***“Giza kapitalagatiko konpentsazio-tasa”*** hori hainbat eratakia izan daiteke, hala nola harrerako herrialdeen kargurako zuzeneko zerga-tasa, berrikuntza teknologikoko transferentziatarako emakidazko akordio lotesleak, edota tokiko garapenerako programez arduratu daitezkeen, etorkinak sorterrietara borondatez eta aldi baterako itzultzeko finantzaturiko programak. Aztertzen ari garen maila honetan, horrelako ekimenak dira lagundutako garapenerako migrazioaren kudeaketaren funtsa.


IX

Munduko Bankuak aditzera eman duenez, hazkunde ekonomikoa ezinbestekoa da, baina berez ez da nahikoa. Per capita hazkunde-tasa Afrikan 2000tik 2015era arteko aldirako aurreikusi denaren halako bi haziko balitz ere (hori nekez gerta daiteke), “Milurteko Helburuetatik” lehen lortuko luke ozta-ozta: muturreko pobrezia eta gosetea erdira murriztea (MB, 2003). Ondorioz, “pobrezia tranpatik” ihes egiteko eta garapenaren bideari ekiteko, finantziario-iturriak behar dira ezinbestean eta horiek kanpotik soilik iritsi daitezke.

Hala ere, ikusi dugunez, eskatzen den gutxieneko tasaren arabera baino askoz ere gutxiago hazten da GLO; Atzerriko Zuzeneko Inbertsioa (AZI) 175 mila milioi dolarretik 135 mila milioi dolarrera jaitsi da 2003an —gehieneko maila 2001ean lortu zuen—, eta behar handiena duten herrialdeetara baino ez da bideratzen; kapital pribatuko fluxu garbiak —1995ean izan zuten gehieneko maila— bilakatu egin dira eta irteera garbiak dira gaur egun, eta esportazioak, hain zuzen ere herrialde pobreenak penalizatzen dituzten nazioarteko merkataritzaren arau asimetrikoekin, ezin dira kapitala metatzeko iturri bihurtu. Horrelako jokalekuan, etorkinek euren herrialdeetara egiten dituzten diru-bidalketak dira kontuan izan beharreko finantziazio-iturriak, antza.

1995etik 2002ra bitartean, garapen-bidean dauden herrialdeetaranzko diru-bidalketen fluxua % 50 inguru hazi da, eta munduko guztizkoa 50.433 milioi dolarretik 80.000 milioi dolarreraino hazi da (MB, 2003). Kalkulatu da 2004ko bukaerarako kopuru hori ia 100.000 milioi dolar izango dela; inoiz izan den hazkunderik handiena izango litzateke, nazioarteko migrazioen hazkundera baino askoz ere handiagoa. Inkestetan oinarrituriko azterlan ugari kalkulatu dutenez, kontu ofizialek barne hartu ezin dituzten beste bide informal batzuk kontuan izanik, diru-bidalketen guztizko bolumena horren bikoitza baino handiagoa ere izan liteke. Baina bitartekaritza ofizialeko kalkuluak aintzat hartzen baditugu, diru-bidalketak nazioarteko finantziazio-iturri nagusiak bihurtu dira azken hamarkadetan garapen-bidean dauden herrialdeentzat; finantziazio-iturri horrek AZI baino ez du aurretik, eta GLO baino askoz ere handiagoa da.


Garapen-bidean dauden herrialdeetaranzko finantza-fluxuak



Fuente: Dilip Ratha, Global Development Finance Report 2003, el Banco Mundial


Ikusten denez, AZIk soilik gainditzen ditu mendearen hasieran diru-bidalketen bolumena garapen-bidean dauden herrialde guztien nazioarteko kapital-fluxuetan. Kontuan izanik HGAek AZIen zati txiki-txikia jasotzen dutela, garbi dago diru-bidalketak direla kapital-sarreretak bide nagusia azken herrialde-talde horrentzat, AZI baino bide garrantzitsuagoa izan ere. BPGa kontuan hartuta aztertzen badugu, datuak adierazgarriak dira. 2001ean, garapen-bidean dauden herrialdeetarantz bideraturiko AZIen fluxuen guztizkoa horien BPGaren % 3,0 izan zen; diru-bidalketak, ordea, BPGaren % 1,3 izan ziren. Hala ere, erlazio hori alderantzikatu egiten da diru-sarrera baxuena duten herrialdeen kasuan; horientzat, AZI horien BPGaren % 0,8 baino ez zen izan, eta jaso zituzten diru-bidalketen bolumena % 1,9 izan zen. HGA guztiak kontuan hartuta, diru-bidalketei esker jaso zuten kapitala 2,13 aldiz handiagoa izan zen AZIren bidez jasotakoa baino (MB/Ratha, 2003:157). Datu horiek adierazgarriagoak dira (bai eta eskandaluzkoagoak ere) AZIrekin alderatu ordez, GLOrekin alderatzen baditugu. 2001ean, GLBren bitartez emandako Laguntzaren guztizko bolumena 52.336 milioi dolar izan zen. Urte horretan bertan garapen-bidean dauden herrialdeetara eginiko diru-bidalketak 72.300 milioi dolarretik gorakoak izan zirenez, GLOrekiko erlazioa % 138,14 izan zen. Laguntzaren bolumenari dagokionez eskandaluzkoak diren datuok honako hau erakusten dute argi eta garbi: euren garapen-prozesuetan, jasotzen dituzten kanpoko laguntzak baino askoz ere ahalegin handiagoak (eta mingarriagoak) egiten dituzte herrialde interesatuek.

Diru-bidalketa gehien jaso zituen eskualdea Latinoamerika/Karibea (LAK) izan zen, Mexikoren bitartez batez ere; izan ere, munduko guztizkoaren % 31 jaso zuen 2002an, 1995ean baino ia 10 puntu gehiago; gehien jaso zuen bigarren eskualdea Asiako Hegoekialdea izan zen: % 20.




Iturria: Orozco, 2003

Herrialdeen arabera, India eta Mexiko nagusitzen dira argi eta garbi; 2001ean, munduko diru-bidalketa guztien % 10,0 eta % 9,9 jaso zuten hurrenez hurren; horien atzetik —aldea handia da— honako hauek ditugu: Filipinak (% 6,4), Maroko (% 3,3) eta Egipto (% 2,9).



Iturria: BM- D. Ratha, 2003:159

Begi bistakoa denez, diru-bidalketek herrialde hartzaileentzat duten garrantzi errealak ezin da termino absolutuetan neurtu, horien ekonomiaren magnitude nagusien arabera —batez ere horien BPGaren arabera— baizik.



Iturria: BM- D. Ratha, 2003:159

Ikusten denez, Tonga eta Lesotho herrialdeen kasuan, diru-bilketan horien BPGaren % 37,3 eta % 26,5 dira, hurrenez hurren. Baina hamabi bat herrialdetan, diru-bidalketak horien BPGaren % 10 baino handiagoak dira. Eta badakigu kopuru horiek nabarmen areagotu direla azken bi urteotan. BID/FOMIN erakundeak LAK eskualdeari buruz egin dituen azken txostenenetan, kalkulatu da 2003an eskualde horretaranzko diru-bidalketak *"38 mila milioi US\$-era iritsi zirela, Atzerriko Zuzeneko Inbertsioko (AZI) eta Garapenerako Laguntza Ofizialeko (GLO) fluxu konbinatuak baino kopuru handiagoa iritsi ere"* (BID/FOMIN, 2004). Eskualde horretako herrialdeen artean, Mexikok gehieneko historikoa lortu zuen, 14.000 milioi dolar baino askoz ere gehiago jaso baitzituen.

Zaila da kopuru horiek gutxiestea. Dena den, kopuru horiek ikusgarriak badira ere, jasotzen dituzten herrialdeen garapenean diru-bidalketek duten eragina da gakoa. Oraindik ere oso iritzi desberdinak daude horri buruz, ez da erraza izango ados jartzea. Orain arte, ikuspegi ezkorrak nagusitu dira. Diru-bidalketek herrialde hartzaileetan azkenean kanpoko kapital-fluxuen mende dauden ekonomiak sortzeko arriskua nabarmendu da. Era berean, aditzera eman da diru-bidalketak, aurreztera eta produkzio-inbertsiora bideratu ordez, zuzeneko kontsumorako erabiltzen badira, azkenean eragin kaltegarriak izan ditzaketela makro terminoetan; izan ere, inflazioa igo egingo da eta inportazioak areagotu, eta horrek eragin kaltegarria izango du merkataritza-balantzan. Bestalde, diru-bidalketek tokiko gizartearen dualizazioa gehiago areago lezakete, kopuru horiek jasotzen dituzten familien eta jasotzen ez dituztenen arteko aldea handituz; era berean, horrek emigrazioa bultzatu lezake, bai bertakoak

migratzaile joan direnen mailara iritsi nahi izateagatik, bai eta emigrazio gehiago finantzatzeko iturria izan daitekeelako ere.

Eta, jakina, badakigu familiek jasotzen dituzten diru-bidalketen portzentaje handi bat zuzeneko kontsumorako eta oinarrizko beharrak asetzeko bideratzen direla. LAK eskualdean jokabide hori gertatzen dela egiaztatu dute azterlan askok, batez ere Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (CEPAL) eta BID/FOMIN erakundeak eginikoek. Azterlan horien artean alde txikiak badiren arren, gehienek agerian uzten dute diru-bidalketen % 85 inguru oinarrizko kontsumora bideratzen direla (elikagaiak, arropa, etab.), % 4tik % 8ra bitarte hezkuntzara eta osasunera, eta portzentaje txiki-txiki bat aurreztera eta produkzio-inbertsiora, hala nola lursailak erostera eta nekazaritza-ezarpenetara. (CEPAL, 2000). Marokori dagokionez, diru-bidalketak BPGaren % 9,6 eta esportazioen % 45,8 dira; hainbat azterlan ofizialek atzeman dutenez, diru-bidalketen % 73 etxebizitza-sektorerara bideratzen dira, eta horrek espekulazioa sor lezake.

Dena den, ikuspegi baikorrakoak areagotu dira azken urteotan; horien arabera, kontsumora bideraturiko diru-bidalketek biderketa-eragina dute eta produkzioan eragin positiboak sor litzakete, jasotzen diren tokiko eremutatik haratago atzeman daitezkeen eraginak sortu ere (Taylor, 1995 eta 1999; Sid Ahmed, 2004; Guarnizo, 2003). Izan ere, zuzeneko kontsumoa haztea —batez ere produkzio nazionalako ondasunak badira— merkatuak suspertzeko eta eskaera agregatua areagotzeko lagungarria izango da. *“Kontsumo oro elkortzat hartzea iruzurra da, eta saihestu egin behar da hori; izan ere, aktibo finkoetan inbertitzea bezain nahigarria da kontsumoa”* (Martínez Pizarro, 2003:43). Kasu bakarrean izan lezakete eragin hutsala edo negatiboa bidalketek, hain zuzen ere, gehiegi kontsumitzera bultzatzen dutenean, batez ere ondasun inportatuak gehiegi kontsumitzera bultzatzen dutenean.

Ezin da balio unibertsalik duen jarraibiderik ezarri ondorio gisa; hala ere, nire ustez, 80ko hamarkadan nagusitu ziren ikuspegietan ez bezala, dagoeneko ez da aukera egin behar inbertsiora bideratzen diren diru-bidalketen eta zuzeneko kontsumora bideratzen direnen artean, baizik eta inbertsiora edota produktu nazionalen kontsumora bideratzen direnen eta gehiegizko kontsumoa eta inportaturiko ondasunen kontsumoa bultzatzen dutenen artekoa. Hori esanda, ez dugu ukatu nahi aurreztera eta inbertsiora bideratzen diren diru-bidalketak jasotzen dituen herrialdearen hazkunde ekonomikoan

dituen eraginak zuzenagokoak eta nabarmenagoak direnik. Diru-bidalketak funtsean kapital pribatuko fluxuak direnez, kontua bi alderdi bateragarri egitea da: diru-bidalketak jasotzen dituzten familia pribatuen erabakiekiko errespetua eta aurrezteak zein produkzio-inbertsioa bultzatzen duten praktikak ezartzeko interes kolektiboa. Azken hori arazo politikoa da funtsean. Etorkinek eta horien familiek diru-bidalketa horien zati handi bat aurreztera eta produkzio-inbertsiora bideratzeko pizgarriak aurkitzera propio bideraturiko politikekin zerikusi zuzena du.

Horretara bideraturiko urratsik eta esperientziarik egin izan da, baina txikiak eta zatikakoak izan dira. Zacatecas estatuan gauzatu den *Tres por Uno* programa horrelako esperientzia ezagunenetakoa bat da; ez, ordea, bakarra. Programa horren bitartez, garapen-proiektu batean inbertituriko dolar bakoitzeko, estatuko gobernuak eta gobernu federalak dolar bana ematen dute. El Salvadorren eta Guatemalan ere antzeko programak garatu dira. Diru-bidalketa kolektiboak sustatzeko ekimenak gauzatu beharko lirateke, El Salvadorreko *“Lehiakortasun Programaren”* antzeko programak, alegia; izan ere, jakin badakigu familiaren artean egiten direnak ez bezala, diru-bidalketa kolektiboak tokiko garapenera bideratzen direla gehien bat. Baina era berean, beharrezkoa litzateke erakunde politiko nazionalak, tokiko bankuak eta Garapenerako Eskualde Bankuak modu aktiboagoan inplikatzeko interes-tasa lagunduak —merkatukoak baino altuagoak— dituzten banku-produktuak sortzeko eta aurrezteagatik zerga-arloko abantailak ezartzeko, familiek diru-bidalketen zati bat aurreztera bideratzeko behar adinako pizgarriak izan ditzaten. Neurri politikoak dira funtsean, eta garapena helburutzat duen migrazioaren kudeaketak horrelako neurriak bultzatu beharko litzuzke.

Dirua bidaltzeagatik bitartekotza-kostuei dagokienez, arlo horretan ere premiazkoa da zerbait egitea. Azken bi urteotan nabarmen merkatu diren arren, oraindik ere oso garestiak dira. CECAK Garapenerako Amerika arteko Bankurako (BID) “Espainian etorkin dauden latinoamerikarrek igorritako diru-bidalketei” buruz egin berri duen txostenean, kalkulatu da etorkinen % 90,8tik (kolonbiarrak) % 98,4ra (dominikarrak) bidaltzen dietela aldizka dirua familiei. Horietatik % 80k baino gehiagok horretan diharduten enpresen bitartez bidaltzen dute; izan ere, horien esanetan, segurtasun eta konfiantza handiagoa eskaintzen diete enpresa horiek eta azkarrago bidaltzen dute. Batez beste 370 € bidaltzeko, 20,5 € ordaindu behar dira, komisioak eta dibisen trukearen aldea barne. Beraz, etorkinek egindako ahaleginaren % 5,54 ez da

hartzaileengana iristen. Portzentaje hori munduko guztizkora proiektatuz gero, milaka milioi dolar dira. Duela gutxi, BID/FOMIN erakundeak kalkulatu du erregulazio egokia ezarrita, transferentzia-kostua % 50 murriztuko lirakeela. Herrialde igorleetako zein hartzaileetako gobernuak eta nazioarteko finantza-erakundeek eremu horretan jardun behar dute ezinbestean; izan ere, sorterriak garatzeko funtsezkoak diren kapital-fluxuen efizientzia hobetzera bideratuta dago jarduteko eremu hori.

Amaitzeko, beste zerbait aditzera eman beharra dago, biziki nabarmenduz. Izan ere, familien arteko diru-bidalketek errenta nazionalaren hazkundera eragin txikia izanda ere, eztaba daezina da gizaki askoren muturreko pobrezia-egoera arintzen eta milioika familiaren hezkuntza eta osasuna ziurtatzen ari direla. Ondorioz, Milurteko Helburuak —hala nola *“muturreko pobrezia eta gosetea ezabatzea”*, *“lehen mailako hezkuntza unibertsala lortzea”*, *“haurren heriotza-tasa murriztea”* eta *“ama-osasuna hobetzea”*— lortzeko, herrialde pobreak egiten ari dira ahalegin nagusia, diru-bidalketen bidez (azken batean, emigratzearen beraren inbertsioa jaioterrira itzultzen da), hain zuzen ere. Epe motzean errentagarriak ez direla-eta, kapital-fluxuek eremu hori uzten badute, GLO ez bada modu masiboan helburu horretara bideratzen —behin eta berriz salatu da hori—, nazioarteko merkataritzaren bidegabeko arauak pobrezia kondenatzen badituzte milioika gizaki, lorpen izugarria da etorkinen diru-bidalketek hainbesteko utzikeria arintzea. Besteak beste, eta beste finantziario-iturri batzuek ez bezala, diru-bidalketen fluxuak kontraziklikoak baitira, eta ondorioz, gehien behar direnean diru-bilketa gehiago bidaltzen saiatuko dira etorkinak; gainera, GLOrekin gertatzen den ez bezala, ziur dakigu gehien behar dutenek jasoko dituztela diru-bidalketa horiek.

Txosten honen diskurtsoaren mailan, hemen aipaturikoak dira lagundutako garapenera benetan bideraturiko migrazio-politikek ezaugarritzat izan behar dituzten printzipioak eta tresna juridiko/politikoak.